


**LARRAZABAL BASERRIA  
ABERTZALETASUNAREN ABIA**

# Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Coupe en nosotros*

*Zeure nortea gurean*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

# UDABARRIA BIZI BARRIA

## IZADIAN

Gure inguruko izaki guztiak, bizidunak batez be baiña bizibakoak be bai zelan edo alan, zar egiten dira: Eguzkia zar egiten da, landarak zar egiten dira, abereak eta piztiak zar egiten dira, eta, osasunbideak ainbeste aurrerapen egin izan arren, gizona be zar egiten da.

Zar egite onen barruan be bizi-barritzeak izaten dira: Udabarriak bizi barria dakar, udeak eldutasuna, udagoienak zartzarua eta neguak, itxura baten beintzat, eriotzea.

Udabarria asten dogun bakoitzean, bizi-barritze bat somatzen dogu gure inguruko izadian.

Ba-dago, orregaitiño, sakonagoko bizi-barritze bat. Udabarria ez da bizi-barritze orren ezaugarria baiño. Benetako bizi-birritzea, frutuak barruan daroan azitik sortzen dan landarearena da, edo gurasoak euren seme-alabengan dauken bizi barriarena.

## ELEIZAN

Erlejiñoak be ezaugarri au artu dabe: «Azia lurrera jausi ta ilten ez ba'da bakarrik gelditzen da, baiña ilten ba'da frutua ugari emoten dau». Orra or berbizkundearen ezaugarri eder bat: gorputza lurperatzen danean, landara barri baten azi lez lurperatzen da.

Orregaitik ospatzen da udabarrian berbizkunde eguna, eta egun orretan egokiro gogoratzen eta ospatzen da Aberriaren berbizkundera be.

## ABERRIAN

Aberriak bere berbizkunde txikiak edo loratzeak izan daikez, esaterako bere jakintzak edo bere nor-tasunak barritzea lortzen dauanean. Orretan diardu gure Euskalerrian, batez be aspaldiko urte batzutan.

Baiña aberriak edo laterriak izaten dabe aziaren eriotzea be.

Esaterako Erroma'ko agiterri aundia il zan ala ez? Bai il zan aginterri lez, baiña andik sortu ziran Europa'ko ta Ameriketako erri ta jakintza barriak bizi dira eta euren daroe erromatarren zerbait; Erromatarren izkuntza ta jakintza il ziran, gurasoak ilten diran lez, baiña or bizi dira seme edo alaba diran izkuntza barriak eta jakintza barriak. Erroma il zan baiña ondorengoetan berbiztuta bizi da.

## EUSKALERRIAN

Gure Euskalerrian olako eriotzarik izan ete dau? Kondairan beintzat ez da agiri. Izkuntzari buruz, izan ete zan, antxiña baten, euskera bakar bat, latiña bakarra izan zan antzera? Lenengo begirapen baten baietz esan lei, baiña ezaugarri argirik ez da agiri.

Euskalerrian, naizta aldakuntza aundiak izan bere bizitzan: izkuntzan, ekonomian, kulturean, endan, pentsabidean... beti izan dauan enbor arrunt baten barruan dago.

Dana dala, sarritan izan bear doguzan udabarri ta loratze barrien ospakizuna udabarrian egitea gauza egokia da, orregaitik ospatzen dabe euskaldunak aberri-eguna berbizkunde-egunean, eta egun ori euskaldun guztientzat pozgarria izan-bearrekoa da, poztasunez eta alaitasunez ospatu-bearrekoa.

Orretarako, benetako euskaldun diran alderdi ta indar guztiak alkartzea gauza txalogarria da.

Izan beite aurtengo aberri-eguna, euskaldunen pozezko eguna.

# ETXEBARRIA'TARRAK LARRIÑO'N

*Etxeberria'tar Isidor, EUSKERAZALEAK gure Talde onetan irakasle dogu eta aurtengo urtarillnen 10'ean, bere senideak Gipuzkoa'ko Larriño'n dauken baserrian izan daben ospakizuna gogoratzten dausku.*

*Senitarteko jaia onen eragillea Isidor'en loba ta ikasle dan josulagun bat izan da eta Benezuela'tik etortean jai bizi bero au gertatu dau.*

*Mezatan oartzaille-lana egiteko zan gure Isidor, baiña egualdi txarrak galazo eutson joatea.*

*Jazokizun edo ospakizun pozgarri ori, agertzen dogu, emen Bear ba'da, gaurtik aurrera Isidor idazle barri bat izango dogu ZER'en. Zergaitik ez? Idatziz artzen da idazteko erreztasuna!*

*Eta ZER'en aldetik, ZORIONAK sendi alkartu oneri!*

## AGURRA

Lenengo abizenarekin naiz bigarre-  
narekin Etxeberria'tar diran LOBA  
maite guztiai, egun gomutari onetan:  
ZORIONAK.

\* \* \*

## EGUN ONDO ASIA

Egun au guk egin geinken egiterik  
onenaz asten dozue: Meza santua en-  
tzunaz. Au da ludian edo lurrean egi-  
terik ederrena, altsuena, pozgarriena.

Zeregin obeagorik ez dago mundu  
onetan: Mezea Gurutzean il zan Jesus-  
'en gomutea da. Mezan dago Jesus  
Aita Jaungoikoaren eta gure bitar-  
tean, gugaitik parkeske, erregututen  
eta zeruko graziak antolatuten.

Garai onetan, ondo dakigun beze-  
la, Belen'go estalpean gure Zeruko  
AMA dago Jesus'en aurrean, beti be-  
zela, baiña orain be berezian, eta gure  
otoitzak zerurantz joango dira  
AMA BIRJIÑAREN eta Jesus'en bi-  
tartzet, indar aundiagoaz.

\* \* \*

## AURRETIKOAK

Bigarrenez, neure maiteok, ZOR  
AUNDI AU daukagu gure aurretik  
joan diranakaz.

Gure AMATXOAK, aitag, seme-  
alabak, anai-arrebak, lengusuak, se-  
nargaiak, emaztegaiak, aitonak, amo-  
nak, eta abar.

BIDE ONEAN, bide ederrean, zu-  
zenean, euren nekeakin, min askokin,  
negar ugariakin, ardura aundiaz eta  
zintzotasunaz ipiñi gaituelako da zor  
ori (ez aitzu au).

\* \* \*

## AREIN BIZITZEA

Gu esker onekoak ba'gara, ez do-  
guz aitzu bear sekula, eta gaurko  
egun onetan gitxiago.

Erregutu eurakaitik bene-benetan  
meza onetan.

Nik baiño obetoago dakizue zelan  
joaten ziran areik mezetara, utsik  
egin barik, beti ordurako, etxean ar-  
dura asko itzita; umeak, abreak...;

ariñeketan, korrika, saltoka, zalapaz-  
traka, goitik bera naiz betik gora.

Gaurko gazte asko ez dira egongo  
asmo onegaz batera.

Areik EUSKALDUN zintzoak,  
egizkoak, baketsuak, Jaungoiko-za-  
leak ziran.

\* \* \*

## ALKARTZEKO ITXAROPENA

Guztiok batu gaitezela eurokaz  
zeru-goietan, egunen baten.

Ludi onetan ez da amaitzen dana.  
Gure biotza Jesus'eganako egarrituta  
dago, gure arimea zerurako da.

Ez esan morroi au LEKAIN zarra  
baiño txarragoa dala.

\* \* \*

## MAIKO OSPAKIZUNA

Ba-noa amaitutera. Nik emendik  
GOGOZ ikusiko zaituet eta gogoan  
euki be bai.

Zuen sabela apur bat berotuten da-  
nean, zelako itzak, esaera, ipuin, txis-  
teak izango diran mai eder baten in-  
guruan!

An urtengo dabe urtetekaok! Zela-  
ko algarak, begikunak, lekaixoak,  
abesketa...!

Olako morroskeri artean, batek  
gaztetuta, biztuta, argituta, onduta  
urten bear dau!

Gaur Jauregi-etxe orretako eguna  
gomutagarria eta ongarrria izan daite-  
la guztiontzat, besterik ez dot nai.  
Urte barri au, 1981'garrena, zorion-  
tsua, baketsua eta ugaritsua izan dai-  
tela guztiontzat emengo ta goiko  
doietan.

Agur guztioi laztan gozo bategaz.

ETXEBARRIA'tar Isidor

# Ebanjelioaren diuntasuna

## Goiria

*Ainbat idazti dira munduan. Milloak eta milloak. Izkuntza danetan idatziak eta gai bereziak dakarzenak. Idazti-mordo orrean artean danetarikoak aurkitzen dira. Onak asko, txarrak gitxiago ez. Ebanjelioa ez bairik barik danen artean onena.*

*Jaungoikoa Bera da bere egillea.*

*Ebanjelioa Kristoren argazki lez artu bear dogu. Bere irakatsiak eta bere bizitz edestia dakar. Mundu osoan ezagutzen da ebanjelioa. Izkuntza guztietan irakurri daiteke gaur ebanjelioa. Euskeran be bai. Elixak maite-maite dau ebanjelioa tabatera dabilzela esan daiteke. Ezin banandu leitekez. Ebanjelioa Elizarekin jaio zan bere babesean jarraitu izan dau gizaldiz-gizaldi.*

*Munduak aski zor dautso ebanjelioari. Orregaitik benetan aipagarriak dira bere irakatsiak. Argia ta bidea da gizonarentzat erbeste ontan. Bera —ebanjelioak— damotso gizonari argia, indarra beste munduruntz bidea dagian bitartean.*

*Ebanjelioa danen idaztia da. Erriaren, agintarien, jakitunen, ezjakiñen, menpekoen, aberatzen, txiroen idaztia. Danak dabe bere premiña, bere bearra. Ogei gizaldi dabezan arren ez dau galdu gaurkotasuna. Bere legeak, bere irakatsiak gaur egiñak lakoak dira. Ainbat legedi asmatu ditu gizonak erriak eta naziñoak zuzenki eroateko. Dana alperrik. Gizonak zapaldu dagiz legeok barrengo kontzientzian sortuak-ezpa'dira.*

*Ebanjelioa Jainkoak Berak gizonari sar-erazia da. Orregaitik bere indarra, orregaitik gizonagan dauan eragintasuna.*

*Bere esaerak, bere aginduak, bere legeak, bere irakatsiak ederrak eta onurakorrak benetan. Ebanjelioak Jainkoari zor jakon maitasuna, menpekotasuna, gurtza ezeze, urkoari zor jakon maitasuna, begirunea be gogorazten dausku. Argi dakusgu au bere*

*orrialdeetan. Jesukristok Jainkoari zor dautsagun maitasuna ta menpekotasuna gogorazten dauskuz. Jainkoa gurtu bear dogula, bere legea bete bear dogula, Jainkoari gure otoitzak eta eskariak egin bear dautsaguzala ta abar. Bardin gure urkoarekin doguzan betebearrak. Zeure urkoa zeure burua lez maite izango dozu. Iñor ez dozu ilko. Iñorenik ezer ez dozu eskuratuko, au da, lapurretarik ez dozu egingo. Eta onelako ainbat agindu. Danak gizonaren onerako.*

*Gaurko gizonak ebanjelioaren irakatsiak eta aginduak obeto beteko ba'leukiez, kristau obeak leitekez, Ikusten diran lapurretak, ilketak, gorrotoak ezkontza-naasteak, gudak eta banakuntzak ez leitekez ikusiko ta mundua be bake aundiagoz biziko leiteke. Gaurko munduan zorionik ezpa'da, bakerik ezpa'da, gorrotoak eta banakuntzak eta ilketak ba'dira, ebanjelioa baztertu dalako da.*

*Itzok esan ebazan orain urte batzuk aldun batek: «Nik ezin dot onartu ebanjelioa; aztun egiten jat, gogorregi da niretzat, baiña bere irakatsiak eta legeak gure gizartean ezarriko ba'leitekez gizon obeak legeok gure gizarte ontan, zuzentasun geiago, bake geiago, eta guztiz ezpa'da be, gorrotoak eta lapurretak eta ilketak uxatu ta gitxitu egingo gendukez».*

*Alperrik dabilta gizonak legeak ezartzen; alperrik erriak eta gizarteak bake-bidean jarri bairik. Ebanjelioak bakarrik bere lege ta irakatsiekin ekarri daike mundura danok gura dogun bekea, zuzentasuna, zoriona.*

*Gure Euzkadi be Jainkoagandik urrinduz doa aspaldion. Egi latza, baiña egia. Betor barriro be ebanjelioa gure errira, Ebanjelioa izango da gure erriaren salbamina. Ebanjelioa gure erriaren bake ta zorion-iturria.*

# **OILLOTEGIKO TXITATXOA**

Txitatxo bat ebillen bein urreztian jaten, eta ur bat geratu jakon eztarrian, ez atzera ta ez aurrera.

Ama oillo lokea etxeakoandreagana abiatu zan ariñiketan, eta ba-dirautso estu ta larri: Zatoz, etxe-koandre, etorri arin neure txiteari urra ateraten.

—Oillo, oillo neurea!; ez daukat baiña oiñetakorik. Zoaz laisterka batean zapatariagana, eta eskatu neure zapatak.

## **ZAPATARIA**

Ba-doa oilloa arin-arin zapatariagana, ta olan esaten dautso:

—Ai zapatari maisu neurea, ekarri gure etxe-koandrearen zapatak, urra ateratzen joateko neure txitatxoari.

—Ai, oillo, oillo neurea!; ez daukat narrurik!

—Ta...?

—Esaiozu auntzari narrua emoteko.

## **AUNTZA**

Ba-doa oilloa arin-arin auntzagana, ta ba-dirautso, bat-batean:

—Ai neure auntxo maitea!; ekarri neuri narrua, nik zapatariari emoteko, zapatariak neure etxe-koandreari zapatak egiteko, etxe-koandreak neure txiteari urra ateratzeko.

—Ai, oillo-oillotxo neurea!; neure narru au gosedu, baiña!

—Ta...?

—Esaiozu zelaiari bedarra emoteko.

## **ZELAIA**

Ba-doa lasterka batean zelaiagana, eta olan esaten deutso:

—Ai, zelai zelaixo neurea!; emon bedarra auntzari, auntzak zapatariari narrua emoteko, zapatarriak neure etxe-koandreari zapatak egiteko, etxe-koandreak neure txitatxoari urra ateratzeko.

—Ai oillo-oillo neurea!; ni legor nago baiña, eta ez daukat bedarrik.

Ta...?

—Esaiozu odeiari ura emoteko.

## **ODEIA**

Ba-doa oilloa egan odeietara, eta onelan dirautso:

—Ai, odei-odeitxo neurea!; emon ura zelaiari, eta zelaia auntzari bedarra emongo, eta auntzak narrua zapatariari, eta zapatariak gure etxe-koandreari zapatak egingo, eta gure etxe-koandreak neure txitatxoari urra aterako.


Eta odeiak emon eutson ura zelaiari, eta zelaia bedarra auntzari, eta auntzak narrua zapatariari, eta zapatariak zapatak egin gure etxe-koandreari, eta gure etxe-koandreak, urreztira arin-arinka joan, eta urra atera eztarritik gure txitatxoari.

# ARETXA EUZKO ZUGATZA? (1)

Idazpurutzat artu dogun zugaitza, euzko zagaitza esan ba'dogu bere, gaitz dago egiztuten gure lurraldetik aterabe ikusten dalako, batez bere Frantzi, Suise ta abar. Baiña ori bai, bildur barik esan geinke beste iñongo lurraldetan baiño begirune aundiagoa euki dabela Euzkadi'n, berari dautso-gun maitasuna erakutsiten emonaz geure irudi lez artu arte.

Bearbada orixe dala bide, eundaka, millaka urte dirala daukagu Gernika'n zugaitza, aretxa, gure anai gipuzkotarrak esango leuken areitza, euzkotar guztion irudipen bezela, baiña, gure lurraldeko beste erri askotan be izan doguz, da dogoz, maitasunik aundienaz, ia-ia zugaitz donea bezela begirunez jagoten izan doguzanak, Abellana'n, Ayala'ko Zarabe, Araba'ko Arriaga'n, Durango alderdiko Gerediaga ta abar luze bat, Amerika aldiaren diran Gernika'ko areitza'ren landara barriak zenbatu barik. Eta, zelan ez! Galdakano'n be izan dogu geure egunak arte, orretariko areitza bat erriaren edestira, kondairara sartu dana.

\* \* \*



*Andra Mari txadon erromanikuen inguruan, Guzur-aretxa egon zan lekuan bertan egon zan Gernika'ko zugaitza'ren kimua.*

Lenago bere zerbait idatzia naz «Agur» aldizkarian, areitz ori zala-ta, baiña, barriz bere zerbait gogoratua-zotea ez da txarto izango.

«Guzur-aretxa» izenaz ezagutzen zan zugatz ori Galdakano guztian, baiña, inork ezekian noztik zeguan areitz ori, bosteun, zazpireun urte edo geiago ebazala baiño besterik. Bear ba'da bera edo beren aurrekoak Galdakano'ko eleiza zar erromanikuan amaitu zan IV gizalditik asita, beren iguruan txadon zarra baiño larogei bat neurkin lenago aurkitzen zalako bertarako bide-aldamenean eskumata, belar-landa txikitxu baten.

Galdakano'ko kondairak ez-dausku argide aundirik emoten Guzur-aretx ori dala-ta, baiña, dakiguna da; nai-ta zarra izan gaur-egungo Udaltexea, bera jaso baiño lenago areitzpe orretan egiten ebezala batzarrak —eguraldi— ona egiten ebaneak, jaiña! ostantzean eleizpean. Baiña, geroago beko txadon barria egiñarte, eleiza zar ortan ospatutzen zalako igande ta jaietako jaupa edo meza, bertara joaten ziran pizkat adiñeko gizon-emakumeak, areizpe ortan geratuten ziran mezako ordurarte, euren asteroko barriketa —alditxuak egiten, bear ba'da euren aurrekoen oiturari jarraituaz. Ortik ei-etorren Guzur-aretxa ez-izena.

\* \* \*

Gure aurreko galdakanotarrak benetan maite eben ereitz ori eta, alan izanik, ez egozan zugaitz orreri oñork kalterik dagiola itxiteko, ez orixe! benetan maite ebelako.

Lenengo karlatarren gudaketan eta ainbat aldiaren, gudaroste bat egon eizan txadon zar orren inguruan eta, inguru ortako egurrik geirenak erre edo euren bearkizunetarako trizkauak izanik, Guzur-aretx orren arbelen batsuk ebagiten asi bear izan eben, baiña, erririk geiena bertaratu eizan eta, gudaroste orrek bertambara laga eban zugaitz ori, 1934'garren azken aldirarte bertan jerraitzeko.



*Gaur-egun bizirik eta lerdan Galdakano'ko Lurgorri larrenan aurkitzen dan Gernika'ko zugaitza'ren seme ederra.*

Azkenez esan dogun urte ortan, Urrillean, Asturias'ko matxiñada zala-ta urten eban ezkanbillan, Bizkai'ko udal gizonak, erriak beren autarkiz aukeratuak, euren erri-eginbearetik kenduak izan ziran eta, erriaren endoretzan geratu zan erritar ziztrin baten beste ainbat zitalkerin artean, erriak ain maite eban «Guzur-aretxa» zarra kenduteko baimena emon eutson gu bezela maite ez eban beste galdakanotar batei.

Berriz, zorionez, erriak aukeratutako endore ta ziñegotziak euren agin-pidean jarri ziranean, 1936'gn. lenengo illeetan, lenen artu eban erabagi bat izan zan «Guzur-Aretxa» egondako lurtean bertan Gernika'ko zugaitza'ren seme bat landatutea eta, alantxe egin zan osperik aundienaz urte aretan Epalla'ren lenengo egunean, gure argazkian ikusiten dan zugaitz mardula egiteko... nai-ta geroago beste «endore» zital batek zustraizgora jaurtiko ba-eban bere.

Luzelgi ez egiteko idazlantxu gure au, beste baten jarraituko dautso-gu edestitxu oneri, ba-daukugulako zer idatzi.

ALTUNA'tar Josu



# ON ELEUTERIO ALDEKOA LOITI

*Ille batzuk dirala il zan Bilbo'n Eleuterio Aldekoa LOITI, Abadea. Bera izan zana izanik, baten batek zertobait beratzaz idatziko ebalako ustean nengoan, baiña, danak ixillik gagozala ikusirik, bere gomutea betikotzeko neuk zerbait esatea erabagi dot, ZER gure euskal aldizkarian.*

\* \* \*

*ELEUTERIO ALDEKOA LOITI, 1916-4-18'an, Gipuzkoa'ko Bergara'n jaio zan; 42'an abadetua, lenengo lenengotik, Bilboko Joan Bateatzaillea ta Joan Ebengeliaren parrokirako, izentatua izan zan, 80'ko dagonillean Eriotzak Aitaren etxera eroan eban.*

\* \* \*

*32 urtetan Deun Ioanen parrokian bertan, gogo artzain oso osokoa izan zan.*

*Zelangoa zan On Eleuterio?*

*Soin ez aundikoa baina bai atsegintsu ta begikoa ta adimen zorrotzekoa egin eban Jainkoak, azurretaraiño euskalduna ta lagun ona, batez bere.*

*Gutziz era onekoa, abots ezitsukoa. Zorioneko zan berari izketan eta elizkizunetan abestuten entzutea.*

*Bere abots ederragaz eta musikalari ona izanik, eliztarrak atsegiñez beterik entzuten eutsoen.*

\* \* \*

*Bere idazlantxuak txukunak ele-ederreko ta ondo biribildutarikoak ziran, bai izkuntza aldetik, bai ta idazkera trebearen aldetik.*

*Jakin bearra da marraztuten eta antzeztuten be ondo ekiala.*

*Euskerazko idazlanak asko asko argitaratu ba'ebazan be, ba-ditu orraitaiño itz lauz eta itz neurtuz, abestietan eta aldizkarietan argitalduriko lan-txu batzuk.*

*Ekian euskereagaz eta trebetasunaz euskeraz geiago idaztea onuragarri izango zan, baiña apala zanez, ez zan ausartia bere lanak argitalduteko.*

*Au tamala Parrokiko egin-bear guztiak ondo ekiana zan; baiña baitipat bere ekiterik egiten goren-goak: Umeen katekesia ta gazteen erateua.*

\* \* \*

*Bera zuzendari ta katekistak ondo gertatuaz eta gaurkotuaz pedagogi ta oraingo teknika guztiakaz millaka ta millaka umeak ondo moldatu ta ezi zi-*

*tuan. Gozagarria zan aren katekesiko umeak alai ta jakintsuak ikustea.*

*Gazteak trebetuteko «ATERPE ALAI» eritxon alkarteak berak sortu eban. Urte asko askotan, Bilbo'n gazteen eziketarako izan diran alkarteetatik gorengoa eta igalitsuena bera izatea ba-leiteke.*

\* \* \*

*Lan ori egiteko On Eleuteri ondo gertatuta egoan. Bere adimen askarragaz ikasketak gorengo maillan egiñik eta irakurle asetu eziña izanik, maisu zan gazteen artean.*

*Beste izketa, alkarizketa, ibiladi eten bakoakaz eta beti txera onagaz, eundaka ta eundaka gazteak, gizonezkoak naiz andrazkoak, epeltasunik бага, gizontasunean ta kristautasunean biribilduak eta oso-tuak izan zirean.*

*Ez dakit zelan goikoak elizbarruti guztiko gazteen zuzendaritzan bera ipiñi ez eben. ¡Beste txoritxu batek abestuko eutsan euskal gaztedi kristauari!*

\* \* \*

*Baiña olakorik ez eben egin al ebenak ezta olako gizon argia izanik, parrokian iru edo lau erretore barri izentau arren, On Eleuterio ez eben orretarako ontzat artu.*

*Ba-dakizue zergaitik?*

*Areitan urteetan ostopo bat egoan tabu txar bat: Euskaldun zintzoa da gizon ori? Ori ezin leiteke izan buru ezertan be, orrentzako purrustada, bai eliz gizonen artean bere.*

*On Eleuteriok apal ta alaitasunez eroan zituan ez-ikusi danak, naiz ta biotz barrua zatituta euki.*

*Azkenengo bere urte bi edo iru oso gaixorik igaro zituan, alan da guzti be bere gazteak etxera joaten jakozan zuzenbide ta argi-billa.*

\* \* \*

*Pasmo-gangrenak arturik, ankasurra iztarretik ebagi eutsoen, samin aundiakaz beterik, baiña Jau-naren aurrean ondo gertaurik joan jaku lagun ona. Emen bear dan lez omendua ez da izan, baiña An Jaunagaz bizi zorionean.*

*Ene zintzo / benetako lagun / gure otoiak or goitik / maitasunez entzun / emen abade bakoitza / on eta euskaldun / izan gaitzezan biotzez / geure barru barrun / biztuteko euskal errin / geure dogun kris-tautasun.*

ON KLAUDIO





Urtarrillean, orain ille bi, EGIN izparringian euskaldun barri baten idazki bat agertu. zan. Bilbao'ko Udal-batzak kale bateri Aita Patxi'ren izena ipintearen erabagiari ezezkoa emoten eutsen eta Aita Patxi zoro bat, buru-gor bat baiño ez zala izan esaten eban.

Aita Patxi'ren bizitzan adorea, kemena, ontasuna, bere burua ukatzea ta urko lagunarentzat ongarrri izatea oargarriak ziran. Or agertzen da Aita Patxi'ri omen eta oroimen berarizkoa agertzeko oiñarria. Bere abadetzearen asieran gudarien artean ibilli bear izan eban eta antxe agertu eban bere kemena, eragiña ta ukamena.

\* \* \*

#### ARRISKUETAN

Aita Patxi'ren aurka jokatu ebenentzat santu kristiñauak zoro batzuk baiño ez dira, baiña gizonik aundienen antzera, aita Patxi'k erria otseindu eta gizakideen alde bere burua eskiñi eban.

Ona emen bere biotzeko gurariak agertzen dabezan berbak:

*«Iru gudarigaz nengoala, kurutzea eskuan nebala, asi ziran suagak, eta lerkaiak botaten egazkiñak. A zan izatekoa! Neure ondo-ondoan jausi zan bat eta ni konorte barrik lurrera jaurti ninduan. Ez nekian bizirik ala ilda nengoan. Gorputzari eragiten asi nintzan bizirik ala ilda nengoan jakiteko eta bizirik nengoala ikusirik lurpean gurutzearen billa asi nintzan eta aurkitu nebanean, gudarien billa asi*

## GUDARIEN LAGUN BAT

*nintzan koitaduai laguntzeko. Danak niri deika egozan, negar eta negar... Guztiok gengoan estu ta larri, egazkiñak geuganaiño jatsiten ziran-eta. Olango baten, balak jaurtiten igaro zan egazkin bat ni gudariari lagunduten nengoala... eta ainbeste bider eriotzea aurrean euki arren bizirik urten neban. Jaungoikoaren eta Amabirjiñearen laguntasuna argi ta garbi ikusten zan ibilli nintzan lekuetan.»*

\* \* \*

#### GUDARI - BURU?

Aita Patxi ain kementsua izanik, egingo eutsoen omenaldiren bat. Eunburu egin eben, baiña eunburuaren izarrak gudari-soiñekoetan ez ebazan erabilli gura. Olan diñosku berak. «Kapitai izan arren, ez nituan erabilli eunburuaren izarrak».

\* \* \*

#### EKINTZAILLE

Grekar abizen-antzeko Papanopolis edo Alexandropolis izenpetzen dauan idazle arek, egiaren bidetik alenduta, diño: «Aita Patxi bere biziaren azken egunetan, auto Stop eginda basetxeetara joaten zanean, autolariak neketu egiten zituala bere errosarioagaz eta batetik bestera eten barik ibiltzen zala bere lekaide-etxera dirua eroateko».

Baiña egi-egia jakin gura ba'dogu, Aita Patxi'rentzat dirua ez zan ezer. Aita Patxi Kristo'gaz eta Kristoturik bizi jakun, beti, baiña batez be abade egin zan ezker. Kurutzea ta Gure Jauna, biak ez ba'ziran bata edo bestea, beti aldean. Mendirik mendi ta kalerik kale, gaisoai ikustaldiak egiten, bera izan zan Zeruko Ogiaren banatzaille.

\* \* \*

#### ERITXIAK

Jakin dagigun berari buruz gizon ospetsuak eta entzutsuak izan eben eritxia:

Sabino Manzarbeitia'k: «Otxandio'ko atzera-aldian, ikara, bildur eta igeste-une aretan, bulartsu ta kemenez beretik il-zorian eta zaurituta egozanai nun egiteko kurutzea emoten ikusi neban aita Patxi».

Pedro Ipiña'k: «Itxura apal baten barruan, aita Patxi bere ekinean neurritz gorakoa agertzen zan, nekez ikusten dan gizon baten antzekoa».

Bixente Zabala'k: «Itxuraz gizajo, irribarrez, bildurtsu, baiña ilteko arriskuan eta zaurituai lagundu bear jakenean, beste bat biurtzen zan. Leoi bat lez ausartu, kementsu ta erabagitsu ikusten genduan aita Patxi».

LETONA'k

## LARRAZABAL (Laburpena,

- «Bizkaia Askatasun-bidean» nire idaztiaren dizdizak bere keaz zuen ikusmena illundu egin eban: Ni Bizkai'ko seme garana baiño ez naz.
- Orregaitik, maitasunaz mai onetara dei egin daustazue eta nik esker onez erantzuten dautzuet eta nazena zuen laguntzarako naz, Jaungoikoaren eta aberriaren aurka ez doazen gauza guztietan.
- Nire liburutxu ori noz eta zertarako egiña dan azalduko dautzuet gaur.
- Bizkai'tarren gogoia, gizon aundien gurariz, okertu egin da gizaldi onetan.
- Askatasuna ez da onezkero gogoratzen eta Bizkaia'ren oldoz eta asmabideak, España'renak eurak dira.
- Idazkietan, itzaldietan, izparringietan... batek be ez dau aitatzen Bizkaia'ren erriketa-bidea, iñok ez dau agertzen bere kondairea dan lez, iñok ez dau etorkizunaren bide egokirik erakusten.
- Bizkaia gure aberriak, IX gizaldian, jaunerri izatearen okerreko bidea artu eban eta bere erakunde jatorren aurkako jokabidea aukeratu eban.
- Bizkai'tar argi ta bulartsuak atzerritarren erriketa-bidea artu eban.
- Orreik erria bide okerrera eroateko, Jaun-ardurea España'tar bateri lenengo eta Latio'tarren arteko errege bateri gero emon eutsoen: «Errege ta Jaun» izenpetzen eban gure Jaun zanak.
- Ortik sortu'zan Bizkai'tarrak euren buruai «España'tar» esatea eta aberri-izen madarikatu ori ez eban baztertu, egiteak eta izateak, ez itzak eta izenak nai zituan erri arek.
- Aundi-aldian izen ori onartzea, jakitunak ulertzekoa da, baiña bera-aldian ez zan barriro berbiztu bizkai-tartasuna. Ori da ulertu-eziñekoa.
- Ibairutarren eta zeltatarren aldian garbi iraun eban Bizkai'tarren duintasunak: Erroma'tarren aginterria, arro, baztertu ebana, basatien ekiñak (Leobijildo gudazalearen burdiñeak) laburtua bai baiña menperatu bakoa izan zana, arabiarrek, galiatarrek, sajondarrak...

CASERIO LARRAZABAL (Begoña)  
3-6-1893



Larrazabal baserria Begoña'n  
itzaldi go

gudaldiak azpiratu zituana, txikia izan arren itxasoz adoretua ta lurrez sendoa izan zana, XVIII gizaldian España'tarren gaisoak pozoitu dau, makal geratu da, gure gizaldian atzerritarrak zatituta, arnas-oska, iltea baiño txarragoa dan lotsakizunean eta laterri makal eta errukarri dan España orrek zapalduta ta isekatuta aurkitzen da.

- Bizkaia'ren zori txarra ageritzekotan, erlejiñoan, oiturretan naiz politikan edo ekonomian, endaz naiz izkuntzaz, izan dauan galtzaita gogoratuko neuskizue.
- Baiña zuen gaurko ardura onek, aberria galbide txarren baten ikusten dozuela agertzen dau. Guztiok dakiguna ez da zertan gogoratu.
- Eta txarrena, bere seme-alabak zori txar onetan aizuta, dana itzita, aberria baztertuta ta gorrotatuta eukitea da.

# GO ITZALDIA

(euskeratuta)



izan zan Arana'tar Sabin'en  
ngarria.

- Zortzi alderdi politikutan dagoz gaur Bizkai'tarrak: iru dira katolikuak eta bost askakerizkoak. Zotzi ikurrin gure mendiean. Igarten dozue zein dan Bizkai'tarrena?
- Alderdi guztiak Lege-Zarren aldeko agertzen dira.
- Baiña olako guzurrakaz samaraiño gagoz: Guztiak dira España-zaleak eta batek be ez dauko kondaira garbirik Bizkaia'ri begira, guztiak jokatu dabe noz edo noz aurka.
- Errukarria Bizkaia orrein eskuetan! Errukarria zure barrizatze-ordua eldu ez ba'litz Jaungoikoaren ardura-bidean!
- Orra or nire liburutxuaren agerkerea. Nire aberria askea izan ba'litz (barzarretan, izparringietan, idazkietan, eleizan, antzokietan, oletan, jauregietan, baserrietan, agintariengan, basoan, kalean... atzerritasun po-
- zoitua agiri ez ba'litz) ez zan agertuko liburu ori eta neu be ez nintzan legeen, kondairearen eta izkuntzearen ikasle izango.
- Baiña ezagutu neban neure aberria eta beretzat laguntzailerik ez neban aurkitu, arerioen txalotzailleak baiño.
- Amazazpi urtera arte Karlos'tarra nintzan, neure aitaren antzera, baiña amabost urtera ezkerro Karlos'tarra «per accidens» edo alan-bearrez, Lege Zarretarako bidea ori zalakoan.
- «Fuego»izen ori gaur atzerapen lez ikusten dot Bizkaia'rentzat.
- 82'garren urtean, Luis anaiagaz eztabaidan niarduala, zorionez ezagutu neban neure aberria, Bizkaia ez dala España ikusi neban. Karlos'tarren bidea kaltegarria zala ikusi-azo eustan.
- Gero aberriaren kondaira ta legeak ikasten asi nintzan eta urtebete barruan gauzea argi ikusi neban. Bizkai'ko betiko jauna dan Jaungoikoagana biotza jaso eta aberria barrizatzeke ziña egin neban. «Jaungoikoa ta Lege Zarra» ziran nire argi betiko.
- Iru lan agertu jatazan lenengotik: Aberriaren izkuntza, kondaira ta legeak ikasi, beste batzuk ikasi dagiezan ikasbide bat idatziz eta kondaira ta erriketea irakasteko liburua eta aldizkariak sortuz eta Bizkaia'rentzat ikurrin bakarra egin.
- Lan aundia benetan, baiña eziña ba'litz neure aberria itziko neuke. Amar urte daroadaz lan onetan, beste dana itzita, eta geiago egin ez ba'dot nagikeriagaitik izan da.
- Liburu txiki batzuk eta «Bizkaia askatasun-bidean» lantxuak eragin dabe euren zirkiña.
- Oar bat: Batzar au ez da abertzale batzarra. Abertzale-batzarra datorren urtean izango da. Beste egun baten azalduko datsuat bere araudia eta nai dabenak sartuko dira.
- Eskari bi: Neure gauzak eta neu ainbeste aitatzea ta izkuntza atzerritarrez berba egitea, zuetariko batzuk euskerea ez dakielako au, parkatu egistazue.
- Eta orain guztiok batera esan dagigun: GORA BIZKAIA'ren askatasuna!

OLAZAR'tar Martin'ek  
laburtu ta euskeratua

# NEGU BALTZAREN ONDOREN

Negu baltzaren ondoren  
egun goibel, egun motzak,  
egun ostendu, izotzak,  
ikusirik argiratzen...

Alaitu zaituz alaitu  
bizia gora datorrenez  
eta, zu be, zelairatu  
bizi izatearen pozez.

MUNIATEGI-tar Sabin

Illik, lotan zegoen oro  
ederrik, indarbarritzen,  
orlegitzen, lorabizten,  
ikusirik ain sendoro...

Dan-dana udabarrika  
bizi-txintada otsan,  
etorkizunari deika  
ustetsu ari danean...

Zergaitik ba, lagun maite,  
etsipenez kokildurik?  
zergaitik zu, ain naigabe,  
itxaropena galdurik?

Bizi-sen alaia galdu  
ete da zure barruan  
ta, negua betikotu  
zure biotz nekatuan?

Aberri negarra ete  
ikusiz etsaiz bete  
ala, euzkera maitea  
mintzen zaituna ainbeste?

Maitasuna or ari da  
bizitzazko bideetan  
batetik eta bestera  
maitearekiko deietan.

## "EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

**EUSKERAZALEAK** Taldeak, igaz lez,  
ipuin-sariketea eratzen dau.

**Sariketa onetara sartzeko, oneik izan-  
go dira baldintzak:**

- Euskera biziz idatziak izan bearke dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzera, orri-aldi bi, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkeneko gure lan-etxean (Colón de Larreategui 14, 2.ª eskoia) izan bearke dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.ª 25.000 pezeta; 2.ª 20.000 pezeta eta 3.ª 15.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearke dabe.
- Oitura dan lez, ipuina izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroazan txartela.
- Maikoen erabagia, bagilleko (ekainilleko) ZER'en agertuko da.

1981, epaila.

# DINOSAURIOAK

## ZERGAITIK AIENATU

Dinosaurioak abere aundi-aundi batzuk ziran. Biotz txiki-txiki bat euken eta ondiño burua txikiagoa gorputzaren neurrian. Bizi-izateko bedar-asko jaten eben eta orregaitik bigarren-arora arte bakarrik bizi ziran, irugarren aroan urtearoak agertu ziralako. Au baño aurreragotik, eguraldia beti bardiña zan eta alan abere aundi onek bizi leitekezan. Baiña urtearoak agertzean, udagoyenean eta neguan dinosaurioak gose asko eben eta orregaitik apurka-apurka il ziran. Gizonak ez ebazan ikusi, bera Kuaternarian agertu zalako.

## EIZEA

Artarloa'tar Txomin eizazale amorratua zan. Neguan eta udagoyenean Bizkaiko medietarantz eskopeta eder bategaz joaten zan. Aspaldi baten Keniara joan zan eta an etxe zar bat, oporrak igaroteko, alogeratu eban. Bera egoan errian, Narsabit'en, jende asko egoan. Eiza-leiaketa bat ospatzera joanak ziran. Lenengo, ezterketa bat egin eben onenak aukeratzeko. Au ospatu ondoren, amar pertsona geratu ziran eta gure Astarloa jauna euren artean. Baiña bigarren eta beneako leiaketa ospatu bear zan baiño egun bat lenago, Txomin gaisorik jausi zan. Osagilleak itaundu etson Afrikako gaixotasunen aurtako ziztadak artu ebazan. Gaixoak aiztu jakozala erantzun eutson. Ondoren osagilleak aste baten ogean egon bear ebala berari esan. Orregaitik, naigabearen naigabez, biaramonean bere ogetik leiaketa-asiera ikusi bear izan eban.

Igaz guztiz eizea itxi eban. Bere emazteak ezin eikean egia zanik uste, baiña egi-egia zan. Igez Ngong'ra (Kenia) joan zan. Egund baten leoi bat ikusi eban, bere eskopetaz abereari su egin eutson baiña uts egin eban. Leoia sumiñaren sumiñaz beragana urreratu zan eta alako baten salto egin eban Txomiñen gaiñera. Baiña saltoa aundiegia zanez, leoia lurrera jausi zan eta abere zorabiatua indar berritu bitartean, Txomin ariñeketan urrunduz zan. Aste bat igarorik barrero eiza-egitera joan zan. Alako baten, zarata batzuk entzun ebazan eta joan zan beraren aurka salto egin eban leoia ikusi eban, saiatzen zala salto laburragoak egiten. Eta ordutik ona Astarloa jauna ez da joan eiza egitera.

ZORIONAK Txomin! «Gure abereak zaindu bear doguz» esaten dautso bere emazteak.

ASTRID BARONA

# JUAN DE ANTXXETA

*Azpeitia'n jaio ta Iruña'n il zan amaseigarren gizardian, Euskalerriko Miguel Angel deitua izan dan geure santuegille ospetsu au.*

*Miguel Angel artista andiaren jasa artu eban Florentzia'n, aregaz bizi izan zanean; Valladolid'eko eskola andian jabetu zan, urren, Gaztelako mistiku-zentsu goitiarraz; eta berezko ehan euskal senaz oraatu eban bere erti-lan luze oparoa.*

*Artista andiak osotzen eben Valladolid'eko eskola ori: Berruguete, Gregorio Fernandez, Jordan, Becerra, Juan de Juni... Juan de Juni ori Medina de Rioseco'n, ango altara-buru edo erretaula egiten egoala zan gaisotula ta gure Antxeta aukeratu eban, besteak beste, lan a amaitzeko. Ona bere itzak:*

*«Ez dago gure artean, nere lan au amaitu leikean beste artistarik, Juan de Antxeta ori izan ezik.»*

## BRIVIESKA'N

*Erri onetako Santa Klara'ko elizaren erretaula El Escorial jauregiaren parekoa dala diñoe. Au da etxegintza lanik aundi ta ederrena; eta a elizetako erretaulik andi ta ederrena.*

*Pedro Lopez de Gamiz de Santa Klara'ko oltzaren egillea, ta Antxeta ango irudiak egindako artista ospetsua.*

*Izkutuzko indar berezia daukie irudioik. Andra Mari'ren Gizakunde ta Jasokundeko irudiak gartsu ta andiro eginik dagoz.*

## ZUMAIA'N

*Antxeta'k egindakoa da Zumaiako altaburua be. Iru maillatan egiña dago. Azken apariko gora-berak ageri dira lenengo maillan, oso ondo landurik.*

*San Pedro'ren bizitza dakar, bigarren maillak: aren irudia ederra, erdi-erdian; Jaunak egindako deia, eskumaldean; eta aingeruak aren katibu-kateak askatzen, ezker aldean.*

*Andra Mari'ren bizitza agiri da, irugarren maillan: Aren Jaiotza, Gizakunde ta aingeru artean zerrura jasotzea.*

*Kalbario mendiko irudi bikaiñak ditu, azkenik, miragarrizko oltza onek.*

## JAKA'N

*Ango Katedraleko altara burukoa be gure Antxeta'rena da.*

*Munduan iñork egiñikako irudirik ederrenetakoak dira emengoak. Aparteko anditasun ta jas berezi dabez Jainko Irukotx onen irudi miragarriak.*

*Ba-dau emengo Jainko Aitak, Miguel Angel'ek egindako Moises aipatu aren antzik. Anditasun ta indarra dario alde guztietatik. Bere altzoan datza, baiña, onen anditasun ta indarraren fruitua, izadi guztia berekin daroan, bere Seme Jesus.*

*Au da, mundu guztian égin dan Jainko irudirik bikaiñena.*

## ZARAGOZA'N

*Oso ederra da gure santuegilleak egindako La Seo'ko altaraburu au. Eta ango gauzarik ederrena: Andra Mari'ren Gizakunde.*

*Aingerua..., gazte ziri, zoli, txotilla da; albistari bati dagokionez.*

*Begirune andiz eta erdi makurturik entzuten deutso aingeruari Andra Marik. Aberaskiro landuta dago Andra Mariren irudia. Gorputza borobiltzen dautsoe soiñeko oparoak, eta ama barri baten itxura gizen emoten.*

## AOIZ'EN

*Naparroa'ko eliz onetako apostoluak dira Antxetaren ertillanik ederrenak.*

*Biñan-biñan dagoz altara atzeko oltzan. Batsuk artega, besteak nasai, bakotxa bere geroari begira Jainkoagaz berbetan dagozala, dirudi.*

*Euren soiñeko luze ta oparoak alango anditasun berezi bat emoten dautse; eta binako dantza bizian euren eginkizun ederra betetzera abiatzen doazela, emoten dabe.*

## ANTXETA'REN ITZALA

*Beste erri ta uri askotan be ibilli zan geure ertilaria. Eta irudi eder asko egin ebazan eurotan bere.*

*Ez zan oso zarrrik il. Ikasle asko ta onak itxi ebazan bere atzetik, alderdi guztietan: Bengoetxea, Larrea, Iriarte, Bazkardo...*

*Eta oneik egindakoa dira geure elizetako irudirik geienak. Iru gizaldietaraiño luzatu zan aren itzal maitagarria.*

URKIOLA'k



# CLARK eta EUZKADI

Robert P. Clark'ek Reno'n, Lasterri Batuetan, Nevada'ko Ikastetxe Nagusian, Euzkadi'tzaz diarduan liburu mardul bat atera dau oraintsu. 343 orrialdekoa.

Inglandar izkuntz errezean benetan. Idazti au esan lei omenaldi bikoitz bat dala. Lenen Amezaga'tar Bingen Aresti'ri eskiñia. Onek emon eutson lenengoz idazleari gure erriaren barri mingotsa. Ondoren bere illoba dan Bingen Amezaga Zubillaga'ri, liburuaren sarreran dirasukunez. Oni, euskal lurraren askatasuna ikusteko gerturik egon daiten.

Gero, zeatz eta meatz, gaiari jarraituz, itzaurre bat damosku eta jarraian iru zatitan banatzen dau bere idazti irakurgarria.

Itzaurrean: «Nabarra» euskal guda-ontziak izan ebazan burruka latzak edesten ditu.

Lenengo zatian: iru atzalburu dakar, irurak gure alderdiaren 1939'ko, guda-aurrero, goraberai buruz.

Bigarren zatian: Franco'ren agintaritzapean jasan genduzan 40 urte latz eta iguingarriak edesten dauskuz. Sei atzalburuk oso-

tzen dabe zati au. Euretán gure alderdiak astiro-astiro baiña etengabeko ekiñaldiaz egin zituan lan gogoangarriak, ETA'ren jaiotza, langillen arazoak eta abar agertzen ditu.

Irugarren zatian: lau atzalburutan Franco il eta gero bateko alderdi jeltzalearen bizikera indartsua, parkamendu edo amnistis, ETA, politika-alderdiak, auteskundeak, España Laterriko Araudia, euskal araudia ta olakoak begizatzen ditu.

Liburu zeatza ta analitikua dogu benetan. Oar ugariak, iztegi oar-sortak, aurkibideak, irudi-bidezko azalpen jakingarriak eta azkenez España'ko Lege-etxeko liburutegian idoro geinkezan idaztien gutun-izendegi edo sartze-egunak.

Kondaira-gaietan jakintsu nabarmena dogu Clark jauna, orrez gain liburu baliotsuak daukazala, ziurkiro.

Geure erriari buruz idatzitako idatzi garratzitsuan, oso argiro azaltzen dauz egiten diran alegin guztiak: bai euskerearen arloan berau indartzeko, baita be gure jakintzan, Prantzi ta España'ko ja-

kintzaren eraso-aldeetik geurea jagoteko, eta abar.

Argi ta garbi, bere luma jatorraz, margoztuten ditu gure arazo mingotsak bere liburu ederrean.

ETA'ren sortzea astiro aztertzen dau, Euskalerrria beti bake-tsua izan dala esan ondoren.

Bardin begiratzen ditu abertzaleen arteko barruko burrukan diran zio ta zergaitiak.

Kondaira-idazle au atzerritarra dala ez dogu aitzu bear. Orregaitik bere eritxiak guztientzat berezkoak, griña-bakoak dirala konturatu.

Nevada'ko Ikastetxe Nagusiak argitaratu dau liburu. Ikastetxe au euskaldunen artean oso ezaguna dogu.

Euskarazko gaietan garrantzitsuenetariakoa atan be.

Liburu-aurrean Irujo jauna zarenaren argazkia dakar: 1977'garren urtean, atzerritik Iruña'ra eldu zan egunekoa.

ARREGI'tar Josu'k



EUSKERAZAINTZA

GIZARTEARENTZAT

ONURAKOR

Madrid'eko Aldizkari Nagusian (B. O. E.), 1981'eko zezei-llaren 21'ean, Laterri-Barruko zaingoaren aginduz, EUSKERA-ZAINTZA Euskeraren Erri-Akademia, legez len ezarria, 32.921 zenkakiaz ezagutua, ministroen batzarraren erabagiz, gizartearentzat onurakor lez agertzen da eta bere araudia be an irakurri leike.

2'garren arauan, F) zatian auxe diño: «Euskerea irakasteko ikastaroak eratzen eta agiridun euskera-irakasleak gertatzen lagun-duko dau eta azterpena egin-ondoren bearrezkoak diran agiriak eta baiezenak emongo ditu».

ZORIONAK «EUSKERAZAINTZA»RI!

ZER'ek

# GIZA-ARLOAK

*Umearo ba-doa  
ta min latza asmetan dut,  
zirika enegan;  
zerbait arrigarria,  
gu zapalduta gagoz  
otso erpapean...*

*Berez maite nun lurra,  
seme saltzailleen bidez  
ezpaitan egoan;  
atzerriko ezpata  
ta etzeko aiztoa  
ebiltzan jokoan.*

*Zonbait euskaldun jator  
itza etsi ezinik,  
euskaldun egia;  
aalez ikusten nitun  
erria zaindu nairik;  
geure eskubidia.*

*Saldukeria baltzak  
guzurrez joten nindun  
biotz barrenian;  
amaren maitasuna,  
zelan saldu leiteke  
zabarkeripian...*

*Zure lur ederrak,  
izkuntz berezia dau,  
Aberri maitia;  
loituta ikusten nun,  
lotsaz beterik egon  
euskaldun egia.*

*Ene euskalduntasuna...!  
guzurra ikusten zendun  
gizon paltsuetan;  
egia artzen zendun  
Aberriaren garraz  
gizon zuzenetan.*

PAULIN

# BARIKU SANTUA

Olerkia dator odoletan  
Bariku Santu onetan...  
gorrotoa ta maitasuna  
arratsaldeko seiretan.

Asarrez, gizona itsutu zan.  
Petralkeria nagusi.  
Zegaz illuntzen zara, gizona,  
zerk nai zaitu galdu-azi...?

Ez al dozu ikusten, onean,  
itzez eta egitetan,  
gaisoak osaunaren billa  
euren gorputz zaurietan...?

«Ikutu eta osatuko naz»  
fedea esaten eutsen;  
bai, andrea, Jainko indarra eukan:  
zuk, gogoz, ikutu zeuntsen.

Olerkia egon lagun artan;  
indar, maitasun argia;  
edertasuna, berez, erion  
ta illarentzat bizia.

Alabearrez, gizonak, gogor,  
gaiztakeriz moskortuta,  
Jainko gizonduaren odola  
nai eben ixurita.

Santutasun bera iltea zan  
traketz areen atsegiña;  
itsutasuna, gogorkeria  
arrokeriak egiña.

Olerkirik, iñun, izan ba'da,  
bizi, egon odoletan;  
Kalbario mendian zer egon...?  
eguzkia il seiretan...

Gizonak, gogor, itz lapurretan,  
arriak erdibitzean...  
mundua salbatu eban Kristok  
biotz maitasun garrean.

Pilato agintzaille koldarra,  
abade-nausi maltzurra,  
zein da ba zuen gogo aierra...?  
Barnean dozuón arra...?

Gorrotoa zan gizon aldetik,  
maitasuna Kristogandik,  
errukiak askatu dau lurra,  
ots, gaiztakeriegandik.

Lurrak edegi ziran dardaraz.  
Aurreko illak berbiztu,  
nork nor il ete leiken munduan,  
lurrak ezin dau sinistu.

Lurrak ez dau izan olakorik.  
Gizonek Egillea il.  
Geroztik itxaropena ba-dau,  
zerura begira dabil.

PAULIN

## ARRANTZALE ARRUNTA DATORRENEAN

Gure etxean aitzak itxasoan lan egiten  
dau eta orregaitik gogapenak, ametsak,  
poztasunak eta naigabeak ez dira beste  
etxe batzuelakoak.

Gizona itxasontzian dagonean gure  
gogapenak beragaz dagoz umetxuok  
oera doazanean beti-beti otoitz egiten  
dabe euren aitagaitik.

Gure bizitza ederra da? Bai ederra da  
baiña ez beti, etxera datorrenean oso  
ederra da baiña gero itxasaldera doa-  
nean naigabe aundi bat biotzean dauka-  
gu.

Laster etorriko da? Ez dakigu. Beti  
ondo etorri daitela gura ta uste dogu.

OLEAGA'tar Karmele

## GURE EREDU (IRUXO'TAR IMANOL)

*Gaur euskotar guztiak gure barrua sakondu dogu Imanol'en bizi-  
tza jatorraren aurrean.*

*Ori da GIZON izatea. Lagunak maitetu, ori guztiok egiten dogu,  
baiña etsai diranak maitatzea, ori da gizonak izan leikean zorionik  
aundiena. Eta orixe izan zan Imanol'en biziera.*

*Gure aberkide onen biotzean ez egoan gorrotoarentzat lekurik,  
naiz bere aberri maitearen etsaiak izan, guztiok gaiñetik, gizona maite  
eban eta gizonaren alde laguntzarik ez eban ukatu.*

*Ikasi bide dagun orretatik ibiltzen.*

*Orrelako gizon asko gendukez gure aberri gaixo onetan: Zelako  
gentza edo bakea! Zelako alaitasun zoragarria guztiontzat!*

*Ez ete dogu ba urratz edo pausu bardinbako ori emoteko indarrik  
izango?*

*Ori gure gain dago. Eta au egiten laguntzeko, ain bearra izango li-  
tzake gure egiteak, edozelakoak, gure buruari gaizki egiñaz, damutuaz,  
eta ondo egiteko indar barriak artuaz.*

*Ba-dakigu etsaia beti or daukagula, beti txarrera eroan naiaz, bai-  
ña gure biotzak ba-dauke indarra non artu, Imanol'ek artzen eban lez.*

*Goi-aldera begiratu bear da, andik datorkigu maitasuna, ontasu-  
na, ta lagun urkoa gure buruak lez maitatzeko agindua ta indarra.*

*Imanol'ek irakatsi dauskun bideari jarraitzen ba'datsogu, gure  
Euzkadi zorionsua izango da.*

*Maitatu daginguzan ba lagunak, maitetu dagiguzan etsaiak: Ez  
dakie zer egiten daben-eta.*

ONINTZE

# AMARI

Zure izena ezti biguna  
zure magala poz toki  
nire izkuntzan ez dago itzik

Zure sabelak sortu ninduan  
aitarekin bat batean  
maitatu nindun zure biotzak  
ni sortu nintzan orduan

Sendi barruan zu ziñeala  
lorarik eder ederren  
usain gozoa, irribarria  
nagusi zure ezpanetan

Atsekabetan, gaiso aldean  
gordelekua zu ziñan  
bizitza guztin gure atsedean,  
goizeko izar zuregan.

Gure euskera bardinbagea  
zure ezpan biguntatik  
ikasi neban beti betiko  
maite dodala barrutik

Ama neurea zu irakasle  
lenengoz bai izan ziñan  
zure antzeko irakaslerik  
ez dot nik izan bizitzan.

*Ama nerea, ama sakona, - igartzen ez dan lorea - gizonentzako emoitx onena - Jainko bakarrik ohea - Zu goralduen ez naz aspertzen - berez berez biotzetik - urteten daula goratarreak - biotzeko erraltatik.*

# AITARI

Zuretzat nire gaurko omena  
aitatxo maite maitia  
zure bitartez Jainkoak ein nau  
gizon euskaldun garbia

Zure begiak niri begira  
urte askotan atsedean  
pozez beterik nire izate  
zorabioz begirutzen

Zure abotsa nire belarrin  
soinu polita eukien,  
bera entzun da ate-ostean  
nire aita non datorren.

Zure eskuak gogor gogorrak  
lan ta lan egin-ostean  
gogorrak eurak izan arren be  
bigunak nire matrallan.

Zuzena ziñan gure etxean  
sendi zaindari biguna  
zure babespen sendi guztia  
pozez zorutzen egoan.

Zintzotasuna, ondrautasuna  
zuk emondako eredu  
zure semeak kristau euskaldun  
zure bideak jarraituz.

Nik egunero zure irudi  
argi argi buruan dot  
nire barrutik otoitzeko lastan  
zuregana bidaltzen dot.

GALLASTEGI'k

- 10 IZKI'koak  
Patriota (el)  
vergonzoso  
convivencia  
diario (el)

- 9 IZKI'koak  
desear para nosotros  
agosto  
bastar

- 4 IZKI'koak  
tierra, mundo

- gordo  
culebra  
escapar  
lo tenemos  
movedizo/clueca

## 10.<sup>a</sup> ERANTZUNA



Gorri


- 8 IZKI'koak  
incorrecto, defectuoso  
ayuntamiento

- 7 IZKI'koak  
mencionado  
deseo

- 6 IZKI'koak  
esfuerzo  
eje

- 5 IZKI'koak  
en la boca  
abundante  
conveniente  
fragmento (el)  
de ninguna manera  
sois  
a juicio de  
cantero

## 11.<sup>a</sup>



Gorri

- 3 IZKI'koak  
verano, estio  
nosotros  
aquél, aquélla  
instante, trecho  
puerto  
llamada  
tonel  
así, de esta manera  
empinado  
helecho
- 2 IZKI'koak  
casi/a ver si  
tabla  
menudo  
macho  
tú  
sufijo que indica  
privación

# EUSKERAZALEAK

## TXOMIN - BEDARRA

Kirol, erailketa, lapurreta eta erriketaz, politikaz, burutik gora egiñik gagoz.

Txikiena, gizonik pitiñena be, erriketazko arrazoetan gauetik goizaldera erlojeru egin jaku: Sozialismoa, komunismoa eta, orretatik aurrera doakiguz independentziaren (askatasunaren) izenean oiuka diarduenak.

\* \* \*

Oraingoz politika ta politikolariak alde batera itziz, goazen euskerea zerbait on egitera.

Euskararik asko ez dakien Diru-Etxeetako nagusiak, alan dala usterik-edo, «Euskaltzaindia»ren arira jausi dira eta euskera, gaztelera, prantzes egin dauskuetz txartelak.

Zergaitik ez dabe jotzen EUSKERAZAINNTZA'ra, diruz eta arrokeriz urriago dabillanagana, erdel txatxalakeriak euskerara biurtzen dakiarenagana?

\* \* \*

Lentxuago batean, UZEI'koa zala iñoenak eta euskal idazkial egiten diarduanak  $7 \times 4$ ,  $3 \times 5$ ,  $8 \times 7$  euskeraz ezin esan leikezala-ta, «por» (x) ori erabilli bear genduala orain, gero ta beti. Eta zazpi lauko, iru bidar bost, zortzi bidar zazpi ezin esan ete doguz ba?

\* \* \*

Aldi baten urrundik, urrunekoen usaiñaz etorren eraso. Etxekoak doguz gaur-egun eraso ori aurrera eroaten diarduenak. Elizak be olakoa egin dausku,h goimaitasunez arturik.

\* \* \*

Txomin-bedarra Arantzazu'tik edatua dogu, ez dagigun lorik egin basoan, azegariak jan ez gagizan, oilloak garalakoan.

LANDAJUELA'tar A.'k

### GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

### SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberek, jazokizunak, barregaiak...

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia